

ataria



**Tenisa
bizimodu**

2019-07-19
1.095. zenbakia
107.6 fm ·
www.ataria.eus



ariduna

Atarikideentzat **bi bazkari bikoitz** ditugu



**Villabonako
23. Garagardo
Azoka**

Uztailaren 18tik 21era


Ataria jarriko da harremanetan

- Ainara Ansa Irazusta (Zizurkil)
- Miren Mujika Toraletxipi (Anoeta)



NAIIRA
estetika zentroa

943 650 448 - 676 285 761
SAN FRANCISCO
PASEALEKUA, 35 • TOLOSA



'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irati saio gidari edota komigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



Ongi etorri etxera

Esan ziguten oporretan etxean geratuz gero, ez genuela deskonektatuko, eta urrutiko paisaien bila joan ginen. Sinetsi genuen zoriontasunak urruti behar zuela egon, han non-bait, bazter ezkuturen batean, eta ordutik, markatuko gaituzten oporrek antolatzen ditugu urtero, bidaia luzean joateko besteko jai egunak gutxitan ditugun arren.

Jarri gara munduari begira eta markatu ditugu mapa batean bisitatzeko ditugun lurraldeak. Lau egun libre ditugun aldiro tour inpossibleak egiteko joera harrigarri hori pizten zaigu, askok baitugu oporren beharra eta oporretan urrutira joateko beharra nahasten hasi ginenetik. Autokarabanaren xarma gustuko dugu, baina hegan joateak ere tentatzen gaitu. Maletak hartutakoan maitemintzen gara bidaiatzearekin, bizitzarekin.

Zu, oster, oporretara etxera etorriko zara. Bartzelona-

Eta, etxera etorritakoan, esango didazu zeinen ederra den betiko jendea betiko tokian ikustea, kalean ezagunei agur esatea eta lagunak edozein bazterretan topatzea



IZARNE OLANO
KALAKARIA

ko plaza jendetsuak eta kale bakartiak ezagutu dituzu. Hemengoak ez diren mendi, bide eta zelaia. Austriako paraieetan herrimina sentitu duzu, belar ederrenetan labainkor. Eta, etxera etorritakoan, esango didazu zeinen ederra den betiko jendea betiko tokian ikustea, kalean ezagunei agur esatea eta lagunak edozein bazterretan topatzea.

Esango didazu toki paregabe bizi gara eta maite duzula hemengo trumoi egunetako euriaren usaina. Gustuko duzula egun eguzkitsuetan azokara jaistea, edo zazpi bideetatik Leaburura joatea. Herria nola aldatu den konturatuko naiz denda eta taberna berriak aipatutakoan. Bizitza nola aldatu zaigun kontatuko diogu elkarri, eta, aldi berean, ikusiko dugu ezer ez dela aldatu.

Segundo bakarrean desagertutako distantziaren inertziak, elkarrekin egongo

gara. Egon, eta ez egin, horixe patua. Izotzetako kafearen klin-klin hotsaz, aspaldiko kontuez hitz egingo dugu; zutaz, nitaz, bikoteez, lanaz, ahizpez; barre egingo dugu, besarkatu, dantzatu... Hori eta gehiago, opor oinetakoak jantzi beharrik izan gabe. Eta zurekin batera ikusiko dut etxean bezain ondo ez gaudela inon.

Hemendik aurrera ere urrutiko paradisuekin ametsetan jarraituko du, baina, bitartean, zain izango nauzu. Ongi etorri etxera.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altxo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
WTA



Olatz Peon alkatea eta Joxe Mari Villanueva PSE-EEko zinegotzia hitzarmena sinatzen. JOSU ARTUTXA

Udaleko zinegotzi berrien aparteko osoko bilkura, gaur, 19:30ean

Tolosako Udalak, aparteko osoko bilkura egingo du, gaur, 19:30ean, udaletxeko batzar aretoan. Zinegotzi berrientzat lehen bilera izango da. Batetik, informazio batzordeen eraketa, arduraldirik gabeko kideen ordainketak eta udal talde politikoaren diru-izendapenak, eta 2019-2023 legealdirako udaleko behin-behineko pertsonalaren izendapena onartuko dituzte. Horrez gain, alkateordeen izendapenen berri, zinegotzi delegatuen izendapenen berri, nahiz lan taldeen eraketaren eta osaketaren berri ere emango dute.

Hiru lan arlo nagusi

Halaber, beharrezkotzat jotzen dute udalean aldaketa sakon bat ematea. Horretarako, antolakuntza egitura berria txertatuko dute, administrazioa garai eta behar berrietara egokitzeko, eta funtzionamendu aldetik eta erabakiak hartzerakoan eraginkorragoak eta azkarragoak izateko. «Hiru lan arlo nagusi sortu dira: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea. Horiek bilduko dituzte egungo batzorde informatibo guztiak, besteak beste, hirigintza, kultura, ingurumena eta kirola, eta EAJko zinegotzien ardurapean egongo dira» azaldu zuen Peonek.

Zinegotzi egitura berri honen barruan, PSE-EEko zinegotzia (kasu honetan, Joxe Mari Villanueva), Herritarrak batzorde nagusiaren barruan kokatuta dagoen kirol arloaz arduratuko da. Bestetik, Udal Gobernua EAJko bost kideek eta PSE-EEko batek osatu dute. Bestalde, liberatutako zinegotzien dedikazio eta ordainsariak, EU-DELe zehaztutako irizpide eta baldintzen barruan ezarritakoak, gaurko bilkuran onartuko dira. Antolaketa berrira bideratutako bilera izango da.

Azkenik, elkarrekin, etorkizuna duen Tolosa anitzagoa eta hobe eraikitzeko asmoa azaldu zuten. «Udal gobernu berriak, oposizio taldearekin hitz egiteko eta adostasunetara heltzeko borondate osoa azaldu du herriarentzat, eta aurrera eraman nahi diren proiektu estrategikoentzat onuragarria eta aberasgarria izango delakoan» aipatu zuen Peonek.

Egonkortasuna bermatzeko akordioa

EAJk eta PSE-EEK datozen lau urteetarako hitzarmena sinatu dute, «elkarrekin, etorkizuna duen Tolosa hobe eraikitzeko»

Josu Artutxa Dorronsoro

Asteazkenean sinatu zuten, Tolosako udaletxean, EAJ eta PSE-EE alderdi politikoek, gobernu akordio berria. Olatz Peon, EAJko ordezkaria eta Tolosako alkatea, eta Joxe Mari Villanueva PSE-EEko zinegotzia izan ziren bertan. «Gainerako euskal erakundeetan sinatutako akordioetan dago oinarrituta, eta helburu du, gobernu talde sendo, indartsu zein egonkorra eratzea. Udalean egonkortasuna bermatzeaz gain, jarraipena emango zaio aurreko legealdian abiarazitako proiektuari, etorkizunera begira estrategikoak izango diren proiektu berrien bitartez» adierazi zuen Peonek.

Villanuevak hartu zuen hitza, ondoren. Herritarren egunerokotasuna hobetzeko, eta Tolosaren etorkizuna bermatzen jarraitzeko helburuarekin, 2019-2023 legealdirako bi alderdiek hainbat proiektu lehenetsi dituztela esan zuen. «Zumardi Txikia berreskuratzea, herritarren erabilerarako eta gozamenerako eremua izan dadin, in-

guruko bizilagunei aparkalekua bermatuta; Rondilla kalea osorik eraberritzea; San Esteban auzoaren garapenerako plangintza zehaztu eta onartzea; gazteen emantzipazioa erraztu eta sustatzeko alokairuan dauden etxebizitza kopurua handitzea; ingurugiroa zaintzeko trantsizio energetikoaren eta energia berriztagarrien aldeko politikak sustatzea; eta azkenik, Tolosaldeko beharrei egokitutako ospitale publikoa eraikitzeko beharrezkoak diren urratsak egitea, eta tolosarrei eskainitako osasun zerbitzuen mapa osatu eta areagotzeko, egungo klinikan zentro sozio-sanitarioa sortzea izango dira akordioaren oinarri nagusiak» aipatu zuen Villanuevak.

Proiektu zehaztatetik harago, Tolosa indartzen eta hobetzen jarraitzeko eta tolosarrei etorkizun hobe eskaintzeko konpromiso etiko eta politikoa oinarritzen da akordioa. «Horregatik, egungo udal gobernu taldeko kideok pertsona ororen zerbitzura eta eskura lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu; berdintasuna, aniztasuna, bakea eta elkarbizitza sustatuz, gure nortasuna babestuz eta gure kultura indartuz eta euskararen erabilera areagotuz; gardentasuna, gertutasuna eta herritarren partaidetza oinarri hartuta» gaineratu zuen Peonek.



KOLORETAKO OIHALEZ APAINDUTA

Horrela agerizen, atzo arratsaldean, Solana kalea. Ohikoa izaten da, bertako Eskuz dendaren kanpoaldean, emakume kuadrilla bat korratz-lana egiten ikustea. Horrela, zaletasunaren barruan, hilabeteetan egindako oihalak, kalea atontzeko erabili dituzte. Oraindik alde bakarrean jarri badituzte ere, aurrerago, guztiz estaltzea aurreikusten dute. Gainera, intentzioa dute Zerkausia ere atontzeko. JOSU ARTUTXA

Iturrizaren udazkeneko jokoetarako izen ematea

Tolosa. Iturriza elkarteak, mahai jokoen txapelketa antolatu du, soilik bazkideentzat. Udazkenean izango dira, eta tartean, tute, mus (4 eta 8 erregeetara), puntua eta txintxon karta-jokoetan eta dominoan aritzeko aukera izango da. Toka txapelketa ere jokatuko da. Jada zabalik dago parte hartzeko izen ematea, eta abuztuaren 29ra bitarte egongo da aukera. Asteazkenean zehar, goizez, (10:00-12:00) elkartera bertaratuz edo 699 169 243 edo 943 698 985 telefono zenbakietara deituz egin daiteke eskaera.

Irailean ere formakuntza saioak KZgunearen eskutik

Tolosa. Musika eskolaren eraikineko beheko solairuan kokatuta dago KZgunea. Formakuntza saio ezberdinak eskaintzen dituzte urtean zehar, eta irailerako eskaintza ere argitaratu dute. Tartean, enplegu bilaketari, produktibitateari, aisiari, ofimatikari, sare sozialei eta segurtasunari buruzko saioak izango dira, goizez eta arratsaldean, euskaraz edo gaztelaniaz. Izena emateko 943 023 681 zenbakira deitu edo tutor.tolosa@kzgunea.net era idatzi behar da. Informazio gehiago, www.kzgunea.eus webgunean.

Hernio inguruko hegaztiak ezagutzeko aukera, bihar

Alkiza. Fagus Alkiza interpretazioa zentroak Hernio-Gazume Kontserbazio Bereziko Eremuan ikus daitezkeen hegaztiak ezagutzeko bisita gidatua antolatu du, biharko. Alkizako plaza-tik abiatuko dira, 10:00etan, eta Jaber Vazquez basozaina izango da gidaria. Bisitan parte hartu nahi dutenek aurrez eman behar dute izena kultura@alkiza.eus helbidera mezua bidaliz. Alkizarrentzako eta 12 urtera arteko haurrentzako doakoa izango da bisita. Gainerakoek, berriz, 4 euro ordaindu beharko dituzte.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

SANTAMAÑAK BADU FESTARAKO GAIA

Atzo, uztaillak 18, Santa Marina eguna ospatu zuten Asteasuko Goiballarako bizilagunek; Bertako gazteek Herri kirol saioa egin zuten eguerdian eta arratsaldean kalejiran abiatu ziren auzotarrak trikitilariekin

Jon Miranda

Aurreko asteburuan orientazio proba eta krosa ospatu ostean, atzo goizean, txupinazoarekin abiatu zituzten Santamañako festak. Asteasuko jai batzordeak, Goiballarako bizilagunek eta Santamaña elkarteak antolatuta dute egitaraua.

Auzoko gazteak elkarrekin lehiari aritu ziren eguerdian herri kirol proba ezberdinetan eta Jexux Mari Irazu eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariek girotu zuten saioa.

Trikitiarekin Izer, Alabier eta Lurturdio aritu ziren eta haiek abiatu zuten kalejira arratsaldean. Bihar eta etzi segiko du festak Santamañan (ikusi egitaraua 26-27 orrietan).



Asteasuko Santamañan bertsolariak aritu ziren atzo goizean eta herri kirol saioa izan zen herriko gazteen artean. J.M.

Irurako Gazte Asanbladak IV. Gazte Eguna egingo du bihar

Egun osoko egitaraua prestatu dute eta bazkalostean, ohitura duten gisan, bingoa eta poteo musikatu egingo dituzte

Erredakzioa

Herriko gazteak biltzen dira Irurako Gazte Asanbladan eta azkeneko hiru urteetan, uztaila partean, Gazte Eguna antolatzeko ohitura dute. Lehenago, herritik kanpora joan eta irteerak egiten zituzten toki diferenteetara. Duela hiru urte, gazte berriak erakarri eta herri giroa sustatzeko, herrian bertan eguna antolatzea erabaki zuten.

Gazte Eguna izaten da, Irurako Gazte Asanbladak urtean zehar antolatzen duen ekitaldi nagusienetako bat; bestea Urtezahar egunean antolatzen duten mendi irteera eta hamaiketako izaten dira. Orain, kideetako batzuk Irura Bizi elkartearen parte hartzen dute aktiboki. Orain arte, herriko kirol eta kultur asteetan eta herriko festetan aritu izan dira, San Migel jailetako Gazte Festan egiten baitute belaunaldi berriek sarrera gazte asanbladan, hamalau urte betetzen dituztenean.

Bihar, 11:00etan jolasekin hasi eta plazan bazkalduko dute gazteek. Ondoren biga eta poteo musikatu eta gauean afaria egingo dituzte (ikus egitaraua 26 eta 27 orrietan).

GUTUNAK

Egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa

Denborak zauriak sendatzen dituela esaten da, baina guri oraindik ez zaigu itxi eta min ematen jarraitzen digu.

Hamar urte igaro diren arren, ezin dugu eta ez dugu ahaztu nahi 2009ko uztailaren 31n gertatu zena.

Egun hartan, Remi Ayestaran Amasa-Villabonako herri ordezkari bezala ari zen lanean, Ertzaintzaren proboka-



Zizurkilen kokatuta dagoen Kaxilda gaztetxearen artxiboko irudia. I.S.

Zizurkilen GTX Festa egingo dute, gaur hasita

Asteburuan lortutako irabaziaz Erraki Gune Autogestionatuen Babes Sarearen erresistentzia kutzara bideratuko dira

Erredakzioa

Aiztondoko Gazte Asanbladak Illunjakoko industriagunean espazio bat okupatu eta Kaxilda gaztetxea jarri zuen martxan joan den apirilean. Hiru hilez «erresistitzen» daramatela ospatzeko, egitaraua prestatu dute astebururako. «Arteaz gozatzeko aukera ere egongo da, rap politikoko latinoamerikarretik hasi eta dancehall eta reggae doinueta-raino. Larunbatean, bestalde, bazkari berezia egingo dugu bertso

saio eder eta kontzertu akustiko paregabe batekin», esan dute gazte asanbladatik (ikus egitaraua 26 eta 27 orrietan).

«Oztopo guztien gainetik gaztetxeak aurrera jarraitzen du. Instituzioek gure borroka deuseztatzeko mila saiakera egin arren inoiz baino biziago gaude, mundu zaharra gainditu eta berri bat eraikitzeak dakarren ilusio eta indar guztiarekin. Oain arte egindako lan guztiaren ospakizuna izango da GTX Festa, erresistentziak merezi duen deskantsu tartean eta elkartasunean oinarrituko dena». Erraki Gune Autogestionatuen Babes Sareak martxan jarri berri duen erresistentzia kutxa nazionalera bideratuko dira irabaziaz.

zioetan erori gabe, festak bakean bukatu zitezen ahaleginean. Baina ez zioten utzi, bihotza leherrarazi zioten.

Oraindik inork ez du azalpenik eman ezta ardurarik bere gain hartu ere.

Horregatik, egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa exijitzen jarraitu beharra daukagu.

Bada garaia Remiri zor zaion aitortza egiteko!

Urtero bezala, uztailaren 31n omenaldi xume bat egingo diogu 20:00etan, Errebote plazan. Orain artekoak bezala, herritik sortu eta he-

rriak eskainitako ekitaldia izango da. Aurtun gainera festa batzordeak hala erabakita, udal gobernu berriak omenaldia jai egitarau ofizialean sartzea erabaki du. Aurreko gobernuak ezarritako betoa gainditu dela ikusteak poztu egin gaitu, Remik merezi zuela uste baitugu.

Bertan elkartuko garelakoan, eskerri asko urte hauetan guztietan gure aldarriarekin bat egin duzuen guztiei. Eta nola ez, eskerri asko baita ere, omenaldian musu-truk parte hartu izan duten denei.

Remi Gogoan Ekimena, Amasa-Villabona

Ibarrako Alurr dantza taldean ibilitakoei deia

Taldeak 25. urteurrena ospatuko du eta horretarako emanaldi berezi bat prestatu nahi du

Erredakzioa

Ibarrako Alurr dantza taldeak 25. urteurrena ospatuko du datorren ikasturtean eta hori dela eta, deialdia egin die taldean ibilitako dantzari guztiei.

«Denok gara Alurr leloa izan dugu beti ahopean eta orain ere, esaldi hau-xe xuxurlatzera gatoz. Alurren jardun zuzena egiteari utzi izan badiozu ere, Alurr beti delako gure parte. Eta orain, garai berriak oroitzuz, zure laguntzaren bila gatoz», esan dute.

Dantzari ohien emanaldia

Urteurrena ospatu ahal izateko, dantzari ohien emanaldi berezi bat egin nahi dute ibartarrek. «Proiektu polit hau aurrera eramateko zuen laguntza behar dugu, zuek izango baitzarete berriz ere oholtza astintzen duten dantzariak», esan dute dantza taldeko arduradunek.

Emanaldi hori prestatzen joateko urritik aurrera bilduko dira asteartean, 19:15etik 20:15era, Alurr dantza taldearen Azkue auzoko lokal zaharrean.

San Inazio ospatuko dute beste behin, Ibarran

Uztailaren 27tik 31ra bitarteko festak izango dituzte; herri-kirolen emanaldia uztailaren 28an izango da.

Erredakzioa

Aurten ere ez dute hutsik egin, eta Ibarrako San Inazio auzoan jaiak izango dituzte San Inazio egunaren bueltan. Uztailaren 27an hasiko dituzte festak, eta hilaren 31 bitarte izango dituzte ekitaldiak. Ohiko herri-kirolen

emanaldia uztailaren 28an izango da, igandean, eta aurten ere herriko sokatira taldeak antolatu du.

Herri afari bat egingo dute eta bi bazkari. Herri afaria uztailaren 27an izango da eta hilak 24 da izena emateko azken eguna. Jatekoa norberak eraman beharko du eta Festa Batzordeak edaria eta kafea jarriko ditu. Bazkarietan berriz, batzordeak aulkiak eta mahaiak bakarrik jarriko ditu, eta norberak eraman beharko du edatekoa zein jatekoa.

EGITARAUA

UZTAILAK 27, LARUNBATA

11:00. Jaien hasiera eta aterkiak

birziklatzeko tailerra.

16:00-18:00. Haur jolasak.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Musika DJ Andoniren eskutik.

UZTAILAK 28, IGANDEA

12:00. Herri-kirolen erakustaldia.

UZTAILAK 30, ASTEARTEA

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Musika.

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

San Inazio eguna

09:00. Meza.

11:00. Pintxo dastatzea.

14:30. Herri bazkaria.

Ondoren. Musika.



Haur jolasak egingo dituzte aurten ere. R. C.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Aralar Bizirik Plataformak Aralarren egindako protestetako bat. ATARIA

Aralar Bizirik-ek pistak bertan behera uzteko eskatu du

Plataformak Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten 15 udalei egin die eskaera

Erredakzioa

Aralar Bizirik Plataformak udal hauteskundeak pasa eta udalak osatu diren honetan, Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten 15 udalei eskatu die «Aralar pistaz betetzea aurreikusten duen plana berehala bertan behera utzi dezala, azken urteetan eraikitako bi pistek sortutako kalte oso larriak ikusita». Horrez gain beharrezkotzat jotzen dituen neurrien inguruan ere aritu da. Horiek horrela, mankomunitaterako aukeratutako udal ordezkariak Aralarren interes ekonomikorik ez izatea eta hori publiko egitea eskatu du. Era berean, mankomunitateko lan taldean «udal ordezkariak gain abeltzain sektorea soilik ordezkatuta dagoenez» desegitea eskatu du edo Aralarren interesa duten sektore guztiez osatzea, hala nola, zientzilariak, mendizaleak, abeltzai-

nak edota ekologistak. Horrez gain, mankomunitateak bere eginbeharrak berrantolatu behar dituela esan du. Mankomunitatea erakunde gardena izan behar duela aldarrikatu du: «Enirio-Aralar Mankomunitateak gizartea informatu behar du, hartzen dituen barne erabaki edota aurrera eramatea erabakitzen duen ekintzen inguruko informazioa helaraziz».

Abere handien kopurua mugatzea

Bukatzeko, mendira bidalitako abere handien kopurua berehala mugatzea eskatu du Aralar Bizirik Plataformak, «azken urteetako abere handien gainkargarekin bukatuz».

Mankomunitatea osatzen duten udalei egindako eskaeraz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiari horretan laguntzeko eskatu dio eta Aralar Natur Parkearen zaintzan dituen ardurak betetzea. «Eta horretarako pistak eraikitzeke dirua Aralar Natur Parkearen zaintza eta hobekuntzara bidera deza eta ez hondatzea, azken urteetan egin duen bezala».

ELAk ez du Gipuzkoako papergintzako ituna sinatu

LAB eta CCOO herenegun sinatu zuten Adegirekin, paperaren sektorerako adostutako lan ituna

Erredakzioa

Sei greba egun eta gero, akordio batera iritsi ziren Gipuzkoako papergintza sektoreko langileak eta Adegiren patronala. Akordio hori herenegun gorpuztu zen, LAB eta CCOO eta patronalak lan ituna sinatu baitzuten, ELAk ordea, ez zuen sinatu. Sindikatuak esan duenez, ez dago berme nahikorik itunak jasotakoa betetzeko. Patronalak edozein momentutan eta lan ordezkarien oniritzirik gabe aplikatu gabe utzi dezakeen hitzarmen bat dela esan du ELAk. Bere iritziz, lan itunak biltzen dituen edukiak sektoreak bizi duen momentu onaren isla dira, eta ez da berme nahikoa. «Horren adibide dira adostutako igoerak, izan ere, aurreko negoziaketan sinatutako igoeren oso antzekoak dira eta momentu hartan sektoreak bizi zuen egoera ekonomikoa kaskarragoa zen. Dena den, garrantzitsuak iruditzen zaizkigu lan istripu eta gaixotasunetako %100ko osagarria, eta baita Geroa-n eman diren aurrerapausoak ere».

Langileek erabaki dute lan itunaren alde egitea, batzarretan egindako bozketetan, eta ELAk abstentzio altua nabarmendu du, «%50a hain zuten ere».

Sinatutako ituna «aplikatu gabe» geratu daitekeela dio ELAk eta hori onartezina dela. «Patronalak edozein momentutan eta lan ordezkarien oniritzirik gabe aplikatu gabe utzi dezakeen hitzarmen bat nahi du euren interesak babesteko. Sektore honek jada gertatu da eta hori berriz ere gertatu ez dadin borrokatzen jarraituko dugu ELAn».

Sindikatuaren ustez oraindik ere bazegoen negoziatzeko aukera, beti ere, sindikatu elkartasuna eta greba egutegia mantenduz.



Lau eskualdeko Euskal Herriko sega txapelketan

Igandean jokatu da kanporaketa Aiako Arizterrazu auzoan; lehen txanda 11:30ean izango da, bigarrena 12:30ean

Erredakzioa

Gipuzkoako sega txapelketa jokatu ondoren, Euskal Herrikoaren txanda izango da asteburu honetan. Ohiko eran, bederatzi segalari hasiko dira lehian, finalerako lau txartelen bila. Horien artean egongo dira eskualdeko lau ordezkari: Arkaitz Arteaga baliarraindarra, Mikel Lizartza tolosarra, Jexuxmari Ormaetxea *Urki* orendaindarra, nahiz eta Alegian bizi, eta Jokin Etxeberria amasarra, Bidaion bizi dena.

Euskal Herriko Txapelketan, Gipuzkoakoan bezala, lehedabizi kanporaketa jokatzen da. Bi multzotan banatuta ariko dira segalariak. Multzo bakoitzetik bi pasako dira finalera, kilo gehien pilatzen dituztenak.

Igandean, Aiako Arizterrazu auzo-

an jokatu da kanporaketa. Lehen multzokoak 11:30ean hasiko dira lehian. 30 minutuko lana izango dute. Julen Gabirondo, Arteaga, Lizartza eta Otegi izango dira lehen txandako segalariak.

12:30ean bigarrena hasiko da ondo-

rengo segalariekin: Etxeberria, *Urki*, Pardo, Irazustabarrena eta Urretabizkaia.

Gipuzkoako txapelketako finalean Gabirondo txapelduna, Otegi, Etxeberria eta *Urki* izan ziren. Euskal Herrikoaren finala uztailaren 28an jokatu da Asteasun. 30 minutuko lana beharrezko ordubeteko izango dute orduan. Asteburuan ikusiko da Asteasura aurreko laurak joango diren edo besteren batek aurrea hartzen dien Arizterrazun.



Mikel Lizartza tolosarra Zizurkilen, Gipuzkoako Azkartasuneko Segagatxapelketan. A. IMAZ

Nerea Eizagirre Europako Futbol Txapelketan

Erredakzioa

Nerea Eizagirre futbol jokalaria tolosarra Espainiako selekzioarekin ari da parte hartzen 19 urtez azpiko Europako Txapelketan. Eskozian ari dira jokatzen txapelketa. Asteartean Espainiak Belgikaren aurka jokatu zuen, 2-0 irabaziz. Eizagirrek bigarren zatia jokatu zuen. Hurrengo partida gaur dute Ingalaterraren kontra, 17:00etatik aurrera. Hirugarren jardunaldia astelehenean izango da, hila-ren 22an, Alemaniaren kontra, 17:00etatik aurrera.

Ander Uranga Europako Txapelketan lehiatuko da

Erredakzioa

Ander Uranga anoetarrak urrezko domina eskuratu berri du Espainiako 20 urtez azpikoen txapelketan. 200 metroko proban eskuratu du domina. Hala, Espainiako Federaziotik azaldu dutenaren arabera, anoetarra Europako 20 urtez azpikoen txapelketan parte hartzeko hautatua izan da. Hain justu, 4x100 proban lehiatuko da Uranga. Asteburu honetan jokatu dute Europako 20 urtez azpikoen Atletismo Txapelketa, Suediako Boras hirian.

Sei partida gaur eta bihar Joxean Tolosa Pilota Txapelketan

Erredakzioa

Bi hitzordu berri ditu Amezketa Joxean Tolosa Pilota Txapelketak. Gaur, 21:30etik aurrera, kadeteetan Elozegi (Ilunpe) eta Amiano (Tolosa) lehiatuko dira. Gazteetan, Salaberria (Hernani) - Altuna (Tolosa), eta nagusietan, Ruiz de Larramendi (Lapke) - Zabala (Zazpi Iturri). Bihar, 21:30etik aurrera, kadeteetan Egiguren (Ilunpe) - Amundarain (Tolosa), gazteetan Arrien (Zornotza) - Goikoe-txea (Tolosa) eta nagusietan Maiz (Villabona) - Zubiria (Zazpi Iturri).

Zortzigarren egin du Tolosaldeak Gipuzkoakoan

Orio izan da garaile Gipuzkoako Traineru txapelketan; ETE ligaren barruan, Sestaon eta Orion jokatu dute asteburuan

Erredakzioa

Gipuzkoako Traineru Txapelketa jokatu zen herenegun Donostian, eta bai emakumezkoetan, baita gizonezkoetan ere, Orio nagusitu zen. Lehendabizikoa izan da emakumeen kasuan, eta hamabigarrena gizonezkoentzat. Emakumezkoetan Tolosaldea traineruko arraunlariak lehiatu ziren, eta zortzigarren sailkatu ziren.

ETE ligako zein Euskotren ligako partaideek hartu zuten parte Donostiako Kontxako badian jokatu zen proban. Hiru tandetan banatuta Hernani, San Juan, Lapurdi, Zumaia, Hibaika, Tolosaldea, Orio, Donostia Arraun Lagunak, Donostiarra eta Hondarribia lehiatu ziren. Orio nagusi izan zen bere taldean proba hasi eta bukaera bitarte. Ziaboga bakarrera iristerako oso atzean zituen Hondarribia, hamalau segundora, Donostiarra 23ra, eta Arraun Lagunak 27ra. Bukaeran, 20 segundo atera zizkion Hondarribiari, 42 Arrauni eta 44 Donostiarrari. Bigarren txandako lehen biek, Hibaikak eta Zumaia, hobetu egin zituzten Donostiako bi taldeen denborak, eta Euskadiko Txapelketan ariko dira, Orio eta Hondarribiarekin batera. Txanda horretan lehiatu ziren tolosaldearrak, eta hoge segundo baino gehiagoko aldearekin amaitu zuten lehen eta bigarren postuekiko. Lehendabiziko txandan, San Juan nagusitu zen, Hernani eta Lapurdiren aurrean.

Asteburuan bi hitzordu

ETE ligari dagokionez, hitzordu berriak ditu asteburuan Tolosaldeak. Larunbatean Sestaon lehiatuko dira, eta igandean, berriz, Orion. Azken hori berezia da tolosaldearentzat, hain justu, bertan egiten baitituzte entrenamenduak.



Ibon Mugerza hirugarren saria eskuetan duela, Sopelan. ATARIA

Mugerza eta Mercader ederki Sopelako lehian

Hirugarren eta laugarren geratu dira, estreinakoz antolatutako txapelketan; Munduko Txapelketa ari dira prestatzen

Erredakzioa

Sopelako Surf Egokitutako I. Txapelketa jokatu zen iragan asteburuan, eta Tolosaldeko parte hartzaileek emaitza onak eskuratu dituzte. Hain juxtu, Ibon Mugerza eta Joseba Mercader tolosarrak aritu dira lehian, eta hirugarren eta laugarren postuetan amaitu dute, hurrenez hurren.

Ostiralean hasi eta igandean bukatu zen txapelketan, ASI kategorian Robson Gasperi izan zen irabazlea, eta bere atzetik sailkatu ziren Benoit Moreau, Ibon Mugerza eta Joseba Mercader. Lehendabiziko aldiz antolatuta da

surf egokitutako txapelketa bat euskal kostan, eta ekimenak Japonia, Australia, Hawaii, Hegoafrika edota Italiako 70 surflari profesional ingururen parte hartzea izan zuen. Profesionalek ez ezik, aniztasun funtzionalen bat dutenek ere izan zuten aukera uretan murgiltzeko adituen laguntzarekin. Sariei dagokionez, nabarmentzekoa da bai emakumezkoentzat bai eta gizonezkoentzat ere kopuru berdinak jarri zitzutela.

Maiatzean Portugalen jokatu zen Europako surf egokituko finalean, Ibon Mugerza tolosarrak garaipena eskuratu zuen. Bosgarren geratu zen, berriz, Joseba Mercader. Berriki, Espainiako txapeldun eta txapeldunorde sailkatzea lortu dute bi tolosarrek, eta Kalifornian jokatu den Munduko Txapelketarako prestatzen ari dira.



Sopelako txapelketako parte hartzaileak, sari banaketaren ostean. ATARIA



Tolosaldeak bat egin du Turismo Arduratsuaren kanpainarekin

#Be Responsible, Turista Arduratsuaren Gida eta Dekalogoak aurkeztu dituzte, Tolosaldean

Tolosaldea Garatzeneko turismo sailak Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailak martxan jarri duen Turismo Arduratsuaren Kanpainarekin bat egin du. Uztailaren 8an aurkeztu ziren Turista Arduratsuaren Gida eta Dekalogoak Tolosaldeko turismo bulegoan. Txindokiko Itzaleko informazio puntuan, *display* ikusgarri batzuen bitartez zabalduko dira lau hizkuntzatan prestatu diren gida hauek.

Honetaz gain, gure webgunean (www.tolosaldea.eus) uda honetan kanpaina berezia egingo dugu banner bat jarriaz, eta sarrerako orrian ere irudiaren bitartez toki berezia emanez. Sare sozialetan zabaldu dugu, eta Tolosaldeko turismo sektoreak ere parte hartu dezan informazioa zabalduko diegu.

Hona hemen Tolosaldeko bisitariei lau hizkuntzatan zabaldu zaien gida eta dekalogoaren edukia:

«Turista Arduratsuaren Gida aholku gida praktikoa da, eta lagungarria egingo zaizu bidaia aberasgarri eta jasangarriez gozatzeko. Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan ezarritako 17 helburuetan, Turismorako Munduko Kode Etikoa eta Turismo Jasangarriaren Mundu Gutunean (ST+20) oinarritzen dira aurkezten dizkizugun aholkuak».

TURISTA ARDURATSUAREN DEKALOGOA

1. Zerbitzu eta produktu turistikoak erabiltzaileen eskubideak ezagutu.
2. Sustatu tokiko garapena.
3. Langileak era egokian tratatu.
4. Errespetatu aniztasuna.
5. Gozatu tokiko kulturaz.
6. Lagundu ondarea kontserbatzen.
7. Lagundu ingurumena zaintzen.
8. Aukeratu produktu eta zerbitzu jasangarriak.
9. Erabili garraio jasangarria.
10. Izan zaitez turista arduratsua.



‘Bullying’ madarikatua

Behin ere bukatzen ez den belar txarra bihurtzen ari da eskoletako edo gaztetxoaren arteko *bullying*-a. Duela aste batzuk ere hamahiru urteko mutiko bat hil da gaitz malapartatu horrek itsaslabar malkartsu batera eramanda. Getxon gertatu da, Euskal Herrian, eta gugandik gertu gertatzeak badirudi gogorragoa bihurtzen duela gertakizuna.

Pertsona bat, kasu honetan mutiko bat, bere burua hiltzeraino eramaten duen desesperazioa izugarria izan behar da. Zenbat sufritu ote du gizagaixoak mundu hau uzteko erabakia hartzeraino iritsi baldin bada. Gaztetxoa izanik, hegoak bizitzari eta udaberriari ireki behar dizkiozunean, ikusteko zer dagoen nerabeen eta geroxeago helduen munduan, eta hego horiek irekitzeko gogo eta bizipoza kendu dizutenean..., zerbait gogorra egon da hor tartean. Zerbait gogorra itsutzen zaituena, itxaropena jaten dizuna, mundu hau toki gorrotagarri bezala ikusarazten dizuna.

Eta *bullying*-a praktikatzeko duenak eta horretaz jabetu eta ezertxo ere egiten ez duenak eramaten du sufrikario hori pairatu duena desesperantza egoera horretara. *Bullying*-a gaiztoa da, zitala, ankerra... aurrean daukazu oraindik osatu gabeko izaki hori deuseztera baitoa bai psikologikoki, bai emozionalki, bai pertsona bezala. Eta askotan ikusi da ondorioak izugarriak direla, batzuen bizipoza eta bizitzeko gogo guztiz kentzerainokoa; eta hain egoera larriaraino iristen ez denean ere, pertsonaren nortasuna, autoestimua eta konfiantza galtzerainokoa.

Eta arazo hau oso serio hartu beharra daukagu, belar txarra ugaritu egiten baita erraz, uztaoa belardian bezala. Badirudi *bullying* kasuak ugaritzen ari direla, eta beti hain larriak ez badira ere, ez dakizu non dagoen muga eta noiz helduko den itzuli ezinezko murraraino. Gaitz malapartatu hau gure artetik erauzteko uste dut Finlandiatik ekarri zutela protokolo edo teknika bat, «torturatzailerak» bere jarraera utz dezan eta hori egiteko besteen babesik sentitu ez dezan. «Torturatzailerak» deitu diot *bullying*-a praktikatzeko duenari, egiten duena tortura psikologiko mota

bat baita, oso gaiztoa, zentzurik gabekoa eta askotan modu ezkutuan eta disimulatuan egiten dena. Eta okerrera da gehienetan inbidiagatik, ezinikusiatatik, mendekuagatik egiten dela beste inolako arrazoirik gabe. Bat besteak baino ikasle hobe delako, saiatuagoa eta nota hobeak ateratzen dituen; edota, besteak baino aspektu fisiko hobe delako eta lagunaren artean arrakasta handiago delako; edota, arazo fisiko txiki edo handiren bat delako eta horrekin min eman nahi zaiolako... Eta beste askotan, norberaren konplexuak, autoestimua eza, arrakasta falta... gainditzeko eta beste bati min emanez eta

hura umiliatuz, zu norbait zarela sentitzeko. Eta hau da *bullying*-ik gaiztoena, denak oso gaiztoak badira ere. Azken honek uste du beste bati min emanez eta hura behean jarritz, norbera altuago geratzen dela, eta ez da konturatzeko hurkoa zenbat eta gehiago zapaldu orduan eta pertsona kaxkarragoa dela, horrek ez duela zorianik ematen, eta hori egiten duena izan litekeen pertsonarik gaizto eta zitalena dela, gerora delinkuentzia erortzeko arrisku handia duena.

Denok jaio gara mundu honetara zoriontsu izateko eta ingurukoei ere zoriontsu izaten laguntzeko. Eta hori egiten duenak barruan poz berezi bat sentitzen du, «kontzientzia» deitzen diogun horrek ematen diguna. Baina besteen zoria deuseztatuz eta besteen bizia tormentu bihurtuz bizi nahi duenari bere «kontzientziak» esaten dio «hi gizatar bat haiz, miserable bat» eta bere burua zikina ikusten du, horrek barruko erraiak jaten dizkiolarik eta zorianik eman ez. Horregatik, askotan, torturatzailerak, *bullying* egilea, miserable bat da eta horregatik egiten du, baina ingurukoaren egitekoa da pertsona horri galga edo freno jartzea eta bere jarreraren alde iluna eta ondorio txarrak ikusaraztea. Eta batez ere denon eginkizuna da *bullying*-a sufritzen duenari gure babes osoa, gure maitasuna eta estimua agertzea, apezkatzea, maitatzea eta baliotsua sentit dadin. Hala bedi!



IÑAKI ZUBELDIA
ATARIA IRRATIA 107.6 FM



«Azkenean alde psikologikoa da garrantzitsuena»

14

LARA ARRUABARRENA
TENISLARIA

Tolosatik Bartzelonara joan zen nerabea zela, bertako goi errendimenduko zentroan trebatzera. Ordudanik tenisa bere bizitzaren erdigune bihurtu da. Buruak eta gorputzak eusten dioten bitartean jarraituko duela dio.

Imanol Garcia Landa

Egun Bartzelonan du bizilekua Lara Arruabarrenak (Tolosa, 1992), baina bere ofizioarengatik mundu osotik bidaiatzen du. Horixe baita tenislari profesionali egokitzen zaien egitekoetako bat, batetik bestera bidaiatzea torneoa jokatzeko. Bi hilabete lesionatuta egon da, eta berriki hasi da berriro ere lehiatzen tenislari tolosarra.

Hasieratik hasiko gara. Nola sartu zinen tenisaren munduan?

Txikitatik gustuko nuen kirolak egitea, eta denetatik probatu nuen. Eta uda batean, zortzi urterekin, izena eman nuen lagun batekin Donostian, Ondarretan, tenisean aritzeko. Gero, ikasturtean zehar ere izena eman nuen. Hasieran egun batez joaten nintzen, gero astean bi aldiz, gero hiritan eta azkenean egunero.

Tolosan ez zegoen aukerarik?

Berazubiko pista dago, eta gurasoek esan zidaten behin joatu nuela bertan, baina ez dut gogoan.

Pixkana gehiago sakontzen joan zinen, beraz.

Hasieratik gustatu zitzaidan eta gaur ere bertan jarraitzen dut.

Eta une bat iritsi zen oso serio hartu zenuela.

Egia esan dena nahiko progresiboa izan zen. Gipuzkoako, Euskadiko eta Espainiako txapelketak jokatzeko nituen. Eta hasieran, 11 edo 12 urterekin, Espainiako txapelketetan ez nintzen asko nabarmentzen, baina gero 14 urterekin zortzi onenen artean nengoen. Espainiako Federazioak niri errepertatu zidan, bertako entrenatzaile baten gustukoa nintzen, eta proposatu zidaten Bartzelonara joatea, eta orduan serioagoa bihurtu zen kontua.

Hamabost urterekin joan zinen Bartzelonara. Nola izan zen jauzi hori?

Federazioak planteatu zidanean, gurasoek esan zidaten nahi nuena egiteko, eta uste dut beraientzako niretzako baino gogorragoa izan zela. Ni ez nintzen oso kontziente nora nindoan, oso gaztea nintzen. Bartzelonara mugitu



nuen bizitza guztia, baina nahiko ondo egokitu nintzen. Nik uste dut gurasoei gehiago kostatu zitzaiela, eta gero denborarekin ohitzen joan dira. Baina bai izan zela erabateko aldaketa. Niri galdetu zidatenean Bartzelonara etortzeko, modu profesionalagoan-eta entrenatzeko, hona etortzea erabaki nuen.

Zu bakarrik joan zinen?

Bai, San Cugateko goi errendimenduko zentrora joan nintzen, eta hor denetatik dute: erresidentzia, eskola, azpiegitura guztiak entrenatzeko... Eta zentroan ere bazeuden Espainiako beste tenislari batzuk, torneoetatik ezagutzen nituenak, eta baita beste kiroltako hainbat kirolari gazte, gero ezagutzen joan nintzenak eskolaren bitartez. Beraz, kirolariez inguratuta nengoen.

Tolosan nengoen eta torneo batera joan behar izaten nuenenean, baimenak eskatu behar izaten nituen, eta ge-

«Ni ez nintzen oso kontziente nora nindoan, oso gaztea nintzen. Bartzelonara mugitu nuen bizitza guztia»

lako arraroa nintzen. Bartzelonan denok berdina egiten genuen, denak porru eginda bukatzen genuen entrenatu ondoren, gero etxeko lanak egin behar genituen, eta egunaren bukaeran izaten zen neke hori denek ulertzen zuten. Jende guztia egoera berdinean geunden. Hori bai, tenislariak ginen gehien bidaiatzen genuenak.

Gero kantxan izaten zenituen aurkariak gelakide ere izango zenituen, orduan.

Tenisekoak ez ginen asko izaten, gehienez zortzi bat edo. Eta mutilak eta neskak ginen, eta mutilen kontra ez genuen lehiatzen. Eta nire adineko neskak zirenekin, bertan batera egon nintzenekin, zortea izan nuen; beraiekin oso ondo moldatzen nintzen. Kantxan elkarren aurka tokatzen zenean, norbera saiatzen zen irabazten. Baina kantxatxi kanpo oso harreman ona izan nuen.

Zenbat denbora egon zinen bertan?

Espainiako Federazioarekin entrenatzen bost urte egin nituen. DBH4an sartu nintzen, gero batxilerra ikasi nuen eta selektibitatea gaitzitu nuen bertan. Gero urtebete ezer egin gabe egon nintzen, eta hurrengo urtean pedagogian matrikulatu nintzen, hori bai, urrutiko ikasketen bidez, ikasten jarraitzeko asmoz. Arazoa izaten zen asko bidaiatzen nuela eta ez nintzela azterketetako deialdietan egoten. Azkenean bertan behera utzi nuen, matrikula ordaintzen ari bainintzen eta ez bainuen ezer egiten. Eta ordudunik ez dut berriro ikasketarik egin.

Tenislarietako asko bidaiatzea tokatzen zaizue, eta hori beste edozein jarduerara egiteko oztopo izango da, ezta?

Ikastea garrantzitsua zela iruditzen zitzaidan. Azkenean, tenisean jende asko dago, eta horietatik elitera %1 iristen da, eta ez dakizu zer gertatuko den. Batxilerra eta selektibitatea egin nahi nituen, eta unibertsitateko ikasketen arazoa bidaiak izan dira.

Federazioarekin egindako bost urte horien ondoren, nolabait zure kasa hasi behar izan zenuen.

Federazioak 14-15 urteko gazteak hartzen ditu, eta 18 edo 20 urte arte laguntzen zaituzte. Niri 20 urte arte lagundu zidaten, ikusten zutelako progresio on bat nuela, baina une bat iristen da jende berria hartzen dutena prozesu hori beste batzuekin has-teko, eta orduan beste batzuk atera egin behar dira. Ni 20 urterekin

WTako 80 onenen artean nengoen, eta

esan zidaten ez nindutela gehiago lagunduko, dagoeneko sartuta nengoelako, eta nire kasa hasteko ibilbidea. Nik neuk nire taldea osatzeko. Entrenatzaile batekin hasi nin-

tzen eta nire ibilbidearekin jarraitu nuen federaziotik kanpo. Ordura arte federazioak ekonomikoki laguntzen zidan: bidaiak, hotelak torneoetara joaterakoan, otor-duak... Laguntza handia da eta hori bukatzerakoan zure poltsikotik ordaindu behar duzu dena.

Entrenatzaile berarekin jarraitzen duzu?

Hasieran hiru urte eta erdi egon nintzen entrenatzaile batekin, gero beste batekin urte eta erdi egin nituen, eta iaz beste entrenatzaile batekin hasi nintzen. Egun entrena-tzaile gabe nago. Dezente aldatzen joan naiz.

Zer dela eta ez duzu egun entrenatzailerik?

Aurreko urtearen bukaeran eta aurtengoaren hasieran ez nintzen oso ondo sentitzen pistan. Ez nuen gozatzen, eta erabaki nuen denbora batez lasaiago joatea, gozatzeaz gehiago pentsatzea, eta horregatik hartu nuen erabakia.

Tenislari batentzat talde teknikoak garrantzitsua izaten da.

Bai, entrenatzailea garrantzitsua da eta prestatzaile fisikoa ere bai. Tenisa oso bakartia izan daiteke; askotan bakarrik tenislaria ikusten da, bakarrik baikaude pistan, eta berez entrenatzaileak ezin digu ezer esan. Bestalde, entrenatzailearekin denbora asko pasatzen dugu, asko bidaiatzen dugulako eta 24 orduak batera pasatzen ditugu; azkenean, entrenatzailea ia zure aita bihurtzen da.

Eta orain nola entrenatzen duzu?


Orain Bartzelonan nago, hemen jende asko dago, eta elkar ezagutzen dugu, eta beti geratu zaitezke norbaitekin entrenatzeko. Prestatzaile fisikoa dut eta berarekin adosten dut egin beharreko prestaketa fisikoa. Zentzu horretan, ez dago arazorik.

Lesionatuta egon zara orain gutxi arte. Nola doa denboraldia orokorrean?

Nahiko gaizki hasi nuen denboraldia, esan bezala ez nintzelako ari pistan gozatzen. Gero erabaki genuen nik bakarrik bidaiatzea eta nire kaxara aritzea, pixka bat gehiago erlaxatuta ibiltzeko eta gozatzeko. Pixkana hobeto sentitzen hasi nintzen, eta emaitzak iristen hasi ziren lur gainean jokatzen hasi nintzenean. Ondoren jokatzen ari nintzenean, lur gaineko denboraldian, Madril-en, aldakan tiroi moduko bat sentitu nuen; partida bukatu nuen, baina korrika ezin nuela egin amaitu nuen. Proba batzuk pasa nituen hurrengo egunean eta medikuek eta fisioterapeutek esan zidaten geratu egin behar nintzela. Lesio kroniko bat dut aldakan, eta esfortzuaren-gatik eta egin nuen mugimendu jakin batengatik, molestatzen hasi zitzaidan, eta esan zidaten bi hilabetez geldirik egon behar nuela. Roland Garros galdu nuen eta Wimbledon ere bai.

Kirolari batentzat lesioak dira unerik txarrenak?

Lesionatzen zarenean behin ere ez da une ona, baina nire ibilbidean izan dudana zortea izan da, aurretik beste behin



egon nintzela lesionatuta. Hilabete batez orain zazpi urte lesio beragatik izan zen, eta orain beste bi hilabete egon naiz. Baina goi mailako kirolari batentzat ez naiz praktikan lesionatuta egon. Ea zorte ona izaten jarraitzen dudana orokorrean lesioekin.

Lesioaren ondoren Suediako txapelketan parte hartu duzu. Nolakoa izan da itzulera?

Pistan pixka bat arraro sentitu naiz, baina hori normala da jokatu gabe eta lehiatu gabe bi hilabete egon ondoren. Erritmoa falta zait eta partida gehiago jokatu behar ditut. Lesioak ez dit molestiarik eragin, eta hori da garrantzitsua.

WTako sailkapenean 165.ean zaude banakakoan eta 67. binakakoan.

Jokatu ez dudana denbora honetan ezin izan ditut puntuak defendatu, eta posizioak galdu ditut.

Garrantzitsua izaten da zein posizioetan zauden?

Modu erlatiboan da garrantzitsua da. Ni orain ez naiz ari



garrantzia handia ematen, atzerago joango nintzela bane-kielako. Saillapenak markatzen duena da ze torneotan parte hartu ahal dezakezun. Beraz, gero eta gorago egon, orduan eta torneo garrantzitsuagoetara joan ahal izango naiz. Saillapenean atzera joatearekin, ohituta nengoen torneoak baino baxuagoak jokatu beharko ditut, baina lasai nago maila daukadala badakidalako. Orain garrantzitsuena lesiotik ateratzea zen eta aldakak berriro minik ez ematea.

Denboraldi honi begira, zer duzu buruan?

Orain garrantzitsuena ondo sentitzea da, eta pixkana erritmoa hartzea. Nik gelditu behar izan dut eta beste jokalariek jokatzen jarraitu dute.

Lesioak beti etortzen dira gaizki, baina gustura jokatzen ari zinela etortzea da agian gehien izorratzen duena?

Garrantzitsuena da zure jokoarekin gustura sentitzea. Partidak galdu ala irabazi ditzakezu, baina zu ondo sentitzen bazara emaitzak etorriko dira denborarekin.

Askotan hitz egiten da tenislari baten gaitasun fisiko eta teknikoaz. Baina, noski, alde psikologikoak ere bere garrantzia izango du.

Nire ustez azkenean alde psikologikoa da garrantzitsue-

na. Fisikoki denak daude ondo, gutxi gorabehera. Hor goian dauden artean bat edo beste gehiago gustatuko zaizu bere teknikarengatik, batek besteak baino politago jokatu dezake, baina denek jokatzen dute ondo. Beraz, burua da aldeak eragiten dituen.

Nola definituko zinateke tenislari moduan?

Tenislari borrokalaria, nahiko osoa, baina egia da mundu guztia dela horrela, fisikoki ere ondo moldatzen dena. Eskuina da nire kolperik onena. Batez ere borrokalaria naitzela esango nuke.

Errebesa bi eskuekin jotzen duzu. Hori txikitatik hartzen den joera izaten da?

Bai, hasten zaren moduan gero jarraitu egiten duzu. Bestela, gero, aldatzea oso zaila da.

Lur gainean aritzen zara gustuen, WTAKo webgunek dioenez.

Lurra izan da beti ondoen aritu naizen pista mota. Batez ere horrelako pistetan hazi izan gara, eta agian pazientzia gehiago dugu. Lurra esango nuke, baina zoru guztiak gus-tatzen zaizkit, pista azkarra eta belarra ere atsegin ditut.

Hiru torneo irabazi dituzu banaka: Seul (2016), Cali (2013) eta Bogota (2012). Nola gogoratzen dituzu garaipen horiek?

Lehenengoa Bogotakoa izan zen, eta orduan hemeretzi urte nituen. Badaude tenislariak bere ibilbidea bukatzen dutenak eta ez dutenak torneorik irabazi. Irabazi nuenean ez nion hainbeste garrantzirik eman, zerbait normala izango balitz bezala hartu bainuen. Gero, denborarekin konturatu naiz torneo bat irabaztea oso zaila dela. Beraz, ziurrenik gehien baloratu dudana azkena izan da, Seulekoa, urteen poderioz konturatzen zarelako zein zaila den horrelako torneo bat irabaztea. Hirurak ditut, azkenean, gogoko, baina gehien baloratzen dudana eta gehien gozatu izan dudana Seulekoa izan da.

Seulekoa pista azkarrean irabazitakoa da, beste biak lur gainean. Horrek ere beste esanahi bat du?

Bai, badakit aurkariei gehiago izorratzen diela nirekin lurrean jokatzeak, 'Lara astun horrekin jokatzea tokatzen zait' pentsatzen dute, eta beraz torneo hori pista azkarrean irabaztea ere gehiago baloratzen dut.

Bogotan bi aldiz finalista ere izan zara, 2017 eta 2018an.

Bogota oso ondo datorkidan pista bat da. Altura handian dago, eta baldintzak oso ezberdinak dira beste batzuekin

alderatuz. Pilotak gehiago egiten du hegan, bote handiagoa egiten du, pilotari eman eta azkarrago joaten da, eta niri ondo datorkit.

Binakakoan, zazpi torneo irabazi dituzu: Bogota (2014 eta 2016), Gstaad (2016), Acapulco (2015), Seul (2015 eta 2014) eta Katowice (2013). Sei aldiz txapeldunorde ere izan zara. Berez, garrantzi gutxiago ematen zaio modalitate honi, ezta?

Oiartzun handiagoa du binakakoa. Binakakoa ez da nire lehentasuna, baina asko gustatzen zait, nire kasuan erlaxatuago jokatzeko dudalako, eta jokatzeko dudarik bikoitekin oso ondo moldatzen nirela. Ondo pasatzen duzu, pistak gozatzen duzu, eta azkenean emaitzak ere etortzen dira. Egokiena izaten da bikote berarekin jokatzeko, jokaldiak gehiago entrenatzeko, baina lehentasuna binakakoari ematean, zaila da bikote berarekin jokatzeko. Oso ona da binakakoa jokatzeko, gero binakakorako ere laguntzen dizulako, eta niri beti gustatu izan zait.

Une txarrak ere izango zenituen ibilbidean. Zein nabarmenduko zenituzke?

Nik uste dut tenislari guztioi gertatzen zaigula. Denboraldi berean une onak izaten ditugu eta baita txarrak ere. Hor dago tenislariaren alde zail hori, bakartia izanik mundu

hau, egin behar diren bidaia guztiekin, eta gainera une batzuetan gaizki pasatzen duzu. Denek pasatzen dute gaizki, ez esan arren. Gero, azkenean, alde onak, hau da, irabazten duzunean, gozatzen ari zarenean, gehiago konpentsatzen dute une txarrek baino. Errealitatea da denok

ia astero galtzen dugula, bestela torneo guztiak irabazi beharko genituen. Nik hiru irabazi ditut, eta beste guztietan galtzea tokatu zait.

Esan ohi da une txarretatik ikasten dela gehien.

Bai, baina ez zara guztiz ohi-tzen. Denok nahi ditugu une onak bizi, baina egia da etorkizunean gertatu daitezkeen une txar horiek errazago pasatzeko, baduzula eskarmentua. Horregatik ere esaten da eskarmen-

tua gradu bat dela, ikasten joaten zarelako.

Orokorrean nolakoa da tenisaren mundua, nola deskribatuko zenuke?

Egunero entrenatu behar duzu, astero bidaiatu behar duzu, eta astero ere lehiatu behar duzu. Oso mundu zorrotza da, eta baita nahiko bakartia ere. Beraz, ez bazaizu gustatzen, oso astuna bihurtzen da. Oporrak azaroan hartzen ditut, bi aste. Aurten, Tolosako Kuadrilla Egunean izan naiz, lesionatuta nengoelako, eta nire lehenengo aldia izan da. Nik ez dakit noiz den jai eguna, berdin-berdin entrenatzen dugu.

Eta zer moduz sanjoanetan?

Beno, egia esan, San Joan egunean dagoeneko Bartzelonan nongoen, entrenatzen, baina egon nintzen tarte oso ondo pasa nuen.

Gero eta presenteago dago emakumezkoen eta gizonezkoen parekidetasunaren gaia, baita kirolean ere. Nola ikusten duzu zuk egoera?

Badaude ezberdintasunak, sailkapeneko 60. postuan dagoen mutil batek postu horretan dagoen neska batek baino gehiago kobratzen baitu. Baina tenisa da zentzu horretan hobekien dagoen kirola. Sailkapeneko 100. edo 150. postuan dagoen neska batek bizimodua atera dezake tenisarekin. Alde horretatik ez daude emakumezkoen kirol asko hori esan dezaketena, ezta gizonezkoen kirol batzuk ere, gutxituak direnak. Tenisean aritzen garen emakumezkoak posizio onean gaude. Entzun dudanez, emakumezko golfariak dira gure antzera daudenak.

Halere, esan duzunez, oraindik ezberdintasunak badaude. Hori parekatuko da?

Torneo batzuetan berdindu dira irabaziak. Ez dakit denborarekin denak berdintzen joango diren.

Irabaziez gain, babesleak ere izaten dituzue.

Bai, hori azkenean bakoitzaren kontua izaten da. Ni arropari dagokionez Jomarekin nago, eta oso ondo portatzen dira nirekin.

Nola izaten da zure egunerokoa?

Garaia arabera izaten da. Lehiaketa garaia bada, goize-





an eta arratsaldean ordu bana entrenatzen dut. Partidaren eguna iritsi ahala, pixka bat gutxiago entrenatzen dut, indarrak gordetzeko. Hor, ikusi behar da zenbateraino etorri naizen nekatuta aurreko torneotik. Bartzelonan nagoenean denbora gehiago entrenatzen dut bai tenisean jokatzen eta baita fisikoki ere. Zerikusi asko du hurrengo partida noiz dudana eta nola nagoen.

Eta azaroko bi aste horiez gain, izaten duzu aukerarik tenisa ez den beste zerbait egiteko?

Jokatzeaz gain, bidaiatzea asko gustatzen zait, eta oporrak ditudanean edota denbora pixka bat dudanean, lekuren batera ihes egiteko aprobetxatzen dut. Kirola egitea asko gustatzen zait, baina ez dut futboleko partida bat jokatuko, nahiko nekatuta nagoelako astekoarekin, baina menditik ibilaldi bat egitea beti gustatzen zait.

Nola aurreikusten duzu etorkizuna? Pentsatu duzu adin jakin batera iristea, edota gorputzak eusten duena arte jarraitzea?

Ez dakit. Ikusi ditut jokalariek batzuk planak egiten eta gero justu kontrakoa egiten, eta, beraz, ez dut plan jakinik. Azkenean, buruak eta gorputzak eusten duten bitartean izango da. Eta noiz izango da hori? Egia esan, ez dakit, bi

urte izan daitezke edo hamar. Azkenean, ez dakidanez, egunean egunekoa egiten joango naiz. Oraingoan ondo nago, eta gustura.

Baduzu helburu bereziren bat? Goragoko mailako torneoren bat irabaztea, adibidez?

Horrelako helburuak beti izaten dituzu, baina orain garrantzitsuena aldakatik ondo errekuaratzea da, denbora askoz gehiago jokatzen jarraitzeko.

Izan duzu uneren bat, pentsatu duzuna zergatik sartu ote nintzen tenisaren mundu honetan?

Bai, noski, askotan [kar, kar]. Baina, beno, hori guztioi gertatzen zaigu. Batez ere une txarretan. Beti jasotzen duzu senideen, lagunen, taldearen babesa, baina azkenean zu zara sufritzen ari zarena, eta hobeto edo okerrago sentitzen zarena, entrenatzera joan behar duzuna gogorik izan ez arren. Hori guztioi gertatzen zaigu.

Eta tarteka Tolosa faltan botatzen duzu?

Orain, etxera joaten naizenean, gehiago baloratzen dut. Askok gustatzen zait etxea, ingurua... Hori bai, hiri handi-goetara bidaiatzen ohitu naiz, eta denbora tarte bat pasatzen dudanean Tolosan, txiki geratzen zait. Baina, esan bezala, asko gustatzen zait bertara joatea.



50 URTEZ ELKARREKIN

Villabonako Santioen barruan, uztailaren 26an, ezkontza baten parodia eginez aterako da 13 lagunez osatutako kuadrilla, duela mende erdi egin bezala; 1994an errepikatu zuten ekimena, eta aurten berriz egingo dute, 50. urteurrenean

Jon Miranda

Lagun kuadrilla zabala da. Guztiak gizonezkoak eta 65 urteren bueltakoak. Konfiantza handia sumatzen da elkarren artean eta orain elkarri adarra joz, hurrena elkarri besarkada estuak emanez, ilusioz begiratzten diote aurtengo festetarako prestatu duten ekimenari. «Denok oso diferenteak gara baina elkarrekin oso ondo moldatzen gara; 50 urte pasa eta gero, hori da inportantea», aipatu du kideetako batek. 1969an «ia modu inprobisatuan» atera zuten konpartsa errepikatuko dute 13 lagunek Santio festen barruan, uztailaren 26an, 11:30ean eliza ataritik aterata. Duela mende erdi bezala, mozorrotuta aterako dira ezkontza bat parodiatuz, norberak orduan jokatu zuen papera betez.

«Martxoan elkartu ginen lehenengo aldiz zer egin erabakitzeke eta pentsatu genuen ahalik eta modu fidelenean

errepikatuko genuela duela 50 urte egindakoa». Ez zaie erraza egin kide guztiak konbentzitzea, badirelako tartean gaur egun Villabonan bizi ez direnak.

Juan Goñi, Joxe Mari Eizmendi, Javier Aranzabe, Joxe Joakin Ayestaran, Ramon Rezola, Juanjo Zumeaga, Mikel Uzkudun, Anton Sanz, Koldo Agirrebengoa, Angel Sanz, Antonio Abaigar, Emilio Salaberria eta Kotte Esnaola atera ziren konpartsan duela 50 urte, eta 25 urte geroago, apaizaren paperean Fernando Garmendia eta aguazilarenean Joxe Arin batu zitzaizkien. Zoritzarrez ezingo dute guztiek egon uztailaren 26ko konpartsan, duela bost urte hil baitzuten Esnaola, eta Salaberria, berriz, gaur egun preso daukatelako Kantabrian (Espainia). «Oraindik ere ia denok gaudela ikusita aprobetxatu dugu konpartsa ateratzeko. Susmoa dugu hemendik 25 urtera ez garela hemen egongo», esan du umorez kideetako batek. Villabonako Santioetako festa batzordean proposatu eta jai egitarauan sartu dute



KONPROMETITUTA

«ezkontza» irudikatzen duen konpartsa. Amasa-Villabonako Udalak lagunduko du ekimena eta jai egitarauan Gazteen Egunean izango diren ekitaldiekin batera gauzatu da.

Ezkonduen egunetik, Ezkontza konpartsara

Villabonako jaien barruan, Santa Ana eguna, egun garrantzitsu bezala gogoratzen dute konpartsako kideek: «Ezkonduen eguna izaten zen uztailaren 26a. Kanpora ezkontutako bikoteak ere etortzen ziren herrira eta plazan bildu ondoren txarangarekin ibiltzen ziren kalez kale. Sokamuturra ere izaten zen eta jai egun handia izaten zen herrian». Erdi txantxetan, jai egitarautik kanpo eta desafio puntu batekin, ezkonduen egunean, ezkontza bat parodiatzea okurritu zitzairen herriko 13 gazteri, artean ezkongabeak ziren 15 eta 18 urte arteko kuadrillari.

Kontxita Uranga herritarrari piztu zitzaion ideia, bere seme, Joxe Joakin Ayestarane gogoratzen duen bezala: «Nire ama andoaindarra zen jaiotzez, baina Hernanin bizi izan zen eta hango festetan ere antzeko konpartsa bat ateratzen hasi ziren, Villabonan baino hamar bat urte lehenago». Urangak berak eta Joxepi Arregik prestatu zuten beharrezko azpiegitura 1969an, jantziak prestatu eta Emilio Salaberriaren soinuarekin kalez kale ibili ziren uztailaren

26an. Hala ere, ez ziren ausartu apaiza edo aguazilaren papera egitera. «Kontuan hartu behar da zein testuinguru bizi genuen duela 50 urte. Dena zegoen galarazita eta elizak pisu handia zuen. Guk atera genuen konpartsa honek bazuen osagai ezkonformista bat, besteak beste, ezkongaien ume bat ere bazutelako, karroan generamana», esan du Joxe Mari Eizmendik.

1969a zen, luze zihoan diktadura frankista eta Amasa-Villabonako gizartean ere sumatzen zen aldaketarako gogo. «Izugarrizko harrera egin ziguten kalean. Egitarautik kanpo, ia sekretuan atera ginen eta txalo artean jaso gintuen jendeak. Tabernetan tragoetara gonbidatzen gintuzten eta etxafuegoak bota zituzten jendea gu ikustera joan zedin. Itxura denez, garai haietan ere, udal agintarien artean bazegoen norbait askatasun eta aire freskoaren bila zebilena, eta behin uztailaren 26koa bukatuta, ekitaldia errepikatzeke eskatu ziguten, ikusi ez zutenek gozatu zezaten». Handik lau egunetara, uztailaren 30ean, San Inazio egunaren bezperan atera ziren berriz kalera, iluntze partean. «Bandoa atera zuten gure konpartsa iragarritz eta jendetza bildu zen plazan. Gainera, udal agintariak afaltzera gonbidatu gintuzten», gogoratu du beste konpartsakide batek. Zaindutako arropa eta osagaiak jo dituzte arrakastaren giltzarritzat, baina baita ere, prestakuntzan egindako



ahalegina. «Gazteak ginen eta berezkoa genuen bat-batekotasuna eta grina. Gainera, erregimenak adierazpen askatasunari ezarritako murrizpenak hausteko beharra zuen gizarteak, eta askatasuna adierazteko gogo», nabarmendu du Eizmendik.

Ezkongaiak, haien seme txikia karroan, haurraren zain-tzailea, aitabitxi eta amabitxia, soinu jotzailea, argazkilaria, Ameriketatik etorritako senidea, marinela, gonbidatuak... Segizio polita osatu zuten gazte haiek, goiko argazkietan ikusi daitekeen bezala.

Mende laurdena eta berriro kalera

1969ko abentura hark aztarna sendo bat utzi zuen lagunarte hartan, baina baita herrian ere. Ondorengo urteetan beste gisa bateko konpartsak atera izan dira Santio festen barruan, arrakasta handia izan dutenak, «eta tartean polemika eragin dutenak», konpartsakideek aipatu dutenez. Hala ere, 1994an, eta ezkontza irudikatuz atera zireneko 25. urteurrenean konpartsa berriz ateratzea erabaki zuten, aguzila eta apaiza gehituta. 15 kide izan ziren guztira eta jai egitarauaren barruan txertatu zuten Santa Ana egunean egin-dako ekitaldia.

Duela 25 urte ateratako jantziak erabiliko ditu, adibidez, Mikel Uzkudunek, andregaiaren papera egingo duen kideak eta Antonio Abaigarri, berriz, ume-kotxe berria prestatu diote barruan eroso joan dadin. 1969an eta 1994an bezala, Ayestaran biltegian bilduko dira konpartsako kideak moztorrotu eta guztia prestatzeko. Handik eliza atarira joko dute 11:30ean: «Loreekin apainduko dugu propio eta alfombra gorria ere jarriko dugu eskaileretan». Trikiti eta pandero jotzaileekin batera ibiliko dira gero kalejiran eta herritarrei bat egiteko deia luzatu diete: «Parte hartzera gonbidatzen ditugu, bereziki kuadrillak. Jantzera aldetik, gizonezkoak galtza luzeak eta txaketarekin azaltzea gomendatzen dugu eta emakumeak, berriz, kapelarekin».

Bazkaria Ama Lurra plazan egingo dute eta bertara joan

nahi duten pertsonak bihar arteko epea dute izena emateko. Kutxabankeko 2095 5072 6091 1866 3363 kontu korrontean heldu bakoitzeko 30 euro eta 12 urtetik beherako haur bakoitzeko 11 euro ordaindu beharko dira, pertsonaren edo kuadrillaren izena zehaztuta.

Hil berria den Joxe Mari Gorrotxategi gozogileak prestatu zuen ezkontzako tarta 1994an. Aurten, haren seme Rafa Gorrotxategik prestatuko du bost solairuz osatutakoa, protokoloak agindu bezala ezkongaiak gonbidatu guztien aurrean moztuko dutena. Bazkalosteko giroa Pasai txarangak jarriko du, 16:00etatik 21:00etara eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte Santio festen hirugarren egunean.

Petit Paris

Erretiratuta daude konpartsan aterako diren kideak, eta beraz, egunotan buru-belarri murgilduta dabilta prestatzeketa lanetan. Bilerak asko egin dituzte eta dena ondo aterako denaren esperantza dute. Ezkontza iragartzeko kartel bat jarri dute Gurea zinema aretoko albo batean, 9x5 metro dituen eta Anton Sanzek prestatu duena: «Ezkongaiak agertzen dira bertan eta atzean Eiffel dorrea ikusi daiteke, *Le Petit Paris* leloarekin». Angel Sanz anaiak eman ditu azalpenak: «Villabonan garai batean pilotari asko zegoen, batez ere zesta puntan ibiltzen zirenak; Ameriketara joan eta han dirua egin ondoren itzultzen ziren herrira. Musika Banda joaten zitzairen tren geltokira ongi etorria egitera eta egiatzko idoloak bezala hartzen zituzten. Kategoria handia ematen zioten herriari eta pilotari horiek ere jantzi dotoreak ekartzen zituzten, Parisko moda imitatu. Hortik dator *Le Petit Paris* leloa».

Ponpa handiko festak dira Villabonakoak, zortzi egunetan luzatzen direnak, eta aurten, data garrantzitsua izango da uztailaren 26a, besteak beste, ezkontza bat parodiatuz, 65 urteren jiran dabiltzan gizonkoteak ariko direlako jai giroa jarritz, konpartsan desfilatuz. Ezer ez eta festa. Berez behar Villabonakoak.





«Denok oso diferenteak gara baina elkarrekin oso ondo moldatzen gara; 50 urte pasa eta gero, hori da inportanteena»

«Gazteak ginen eta berezkoa genuen bat batekotasuna eta grina. Gainera, erregimenak adierazpen askatasunari ezarritako murrizpenak hausteko beharra zuen gizarteak, eta askatasuna adierazteko gogoia»

«Oraindik ere ia denok gaudela ikusita aprobetxatu dugu konpartsa ateratzeko. Susmoa dugu hemendik 25 urtera ez garela hemen egongo»

«Parte hartzera gonbidatzen ditugu herritarrak, bereziki kuadrillak. Jantzkerak aldetik, gizonekoak galtza luzeak eta txaketarekin azaltzea gomendatzen dugu eta emakumeak, berriz, kapelarekin»



Elhuyarren hizketa-teknologiak inklusioaren zerbitzura



24

Txoko honetan lehenago ere esana dugu hizketa-teknologiak erabilgarriak izan daitezkeela ezgaitasunak dituzten pertsonentzat. Duela urtebete pasatxo, webguneak irakurri beharrean entzuteko teknologia aurkeztu genizuen; TTS edo *Text to Speech* delakoa, alegia. Ikusmen urritasunen bat edo dislexia arazoak dituztenei euskarazko webguneetako edukia irakurtzen dien sistema automatikoa bat da.

Orain, urrats bat aurrerago egin dugu, eta eraikin, museo eta ibilbide turistikoak inklusibo eta irisgarri egiteko sistema bat garatu dugu. Bidaide izenekoak (<https://bidaide.elhuyar.eus>).

Bidaiderekin, edonork bere kabuz erabil eta goza ditzake turismo- eta kultura-baliabideak (museoak, ibilbide turistiko eta kulturalak...), baita eraikin publikoetako bisitak ere. Hiru osagarri nagusi ditu Bidaidek: edukiak sortu eta kudeatzeko hizkuntza- eta hizketa-teknologiak, irisgarritasun-aholkularitza eta telefono mugikorretarako aplikazio edo app bat.

Edukien kudeaketari dagokionez, esan bezala, hizkuntza- eta hizketa-teknologiak erabiltzen dira irisgarritasunaren mesedetan. Batetik, hizkuntza batean baino gehiagotan sor daitezke testuak, itzulpen automatikoa baliatuz,

erabiltzaileek informazioa nork bere hizkuntzan jasotzeko aukera izan dezaten. Hala ere, edukiak eta azalpenak testu-formatuan badaude, ez dira irisgarriak itsuentzat edo ikusmen urritasunen bat dutenentzat. Horregatik, testu horiek audio bihurtzeko aukera ere eskaintzen du sistemak; nahi izanez gero, automatikoki sor daitezke audioak, Elhuyarren hizketaren sintesia baliatuz.

Irisgarritasun-aholkularitzari dago-kionez, horretan espezializatutako enpresa baten laguntza behar izaten da. Batetik, ibilbidea edo eraikina irisgarria izan dadin egin beharko liratekeen moldaketak proposatzen edo egiten dituzte. Bestetik, aukerako irisgarritasun-informazio gehigarria gehitzen diete interesguneetako eta ibilbideko puntu kritikoetako azalpenei; adibidez: oztopo arkitektonikoak, malda handiak eta erakusgaien deskribapenak aurkitu edo eskulturak ukitu ahal izateko oharrak... Gainera, nahi izanez gero, irakurketa errazaren gidalerroei jarraituz idazten dituzte azalpen-testuak, ezgaitasun kognitiboak edota hizkuntza ulertzeko zailtasunak dituztenentzat. Dena prest dagoenean, irisgarritasuna bermatzeko probak egiten dituzte ezaugarri eta aniztasun funtzional askotarikoak dituzten erabil-

tzaileekin. Azkenik, prestatutako eduki hori guztia telefono mugikorretako aplikazio batean txertatzen da, erabiltzaileak bere mugikorra besterik behar izan ez dezan halako lekuetan bere kasa ibiltzeko. Aplikazioa bera irisgarria da, erabiltzailearen irisgarritasun-ezarpenekin uztartzen da, kolore-kontrasteak eta piktogramak ditu eta gidari lanak egiten dizkie ikusmen urritasunen bat dutenei, toki garrantzitsuenetan azalpenak emanez: biratu ezkerretara, segi beste 30 metro aurrera... Horretarako, GPS teknologia erabiltzen da aire zabaleko ibilbideetan, eta eraiki-nen barruan, berriz, bluetooth seinalea igortzen duten baliza batzuk jartzen dira puntu klabeetan.

Bidaide egitasmoa aitzindaria da erabat, pertsona guztiei bermatu nahi baitie kulturarako, turismorako eta zerbitzu publikoetarako sarbidea, aniztasuna errespetatuz eta aintzat hartuz. Eta euskaraz, jakina!

Dagoeneko bada ibilbide kultural bat Bidaide sistema baliatuz bisitatu daitekeena, Usurbilgo Harria Hitz ibilbidea (<https://adi.usurbil.eus>) hain zuzen. Harria Hitz ibilbidearen helburua da Usurbilek euskal kultura garaikidea susperraldian izan duen papera ezagutaraztea, herrigunean ikus daitezkeen zenbait elementuren bitartez. Kasu honetan, sei hizkuntzatan jarri dira ibilbideko zazpi puntuetako azalpenak; katalan eta galegozkoak itzulpen automatikoz sortu dira zuzenean, eta gainerakoak itzultzaile profesionalen egin dituzte. Audio guztiak TTS teknologiaren bidez sortu dira, automatikoki. Eta azalpenak irakurketa errazaren gidalerroei jarraituz idatzita daude.

Beraz, ez dago aitzakiarik bisitarik ez egiteko.

SAROI JAUREGI Aiestaran
ELHUYAR HIZKUNTZA ETA
TEKNOLOGIA UNITATEKO
KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA



Isildu ezin den sufrimenduaren arrastoa

Andoainen bada baserri bat, bertako hormak negar malkoz margotuak direna; bertan 6 eta 12 urte bitarteko neskentzako espetxea bilakatu zen, 1949. urtetik aurrera. Tuberkulosia ekiditeko egoitza bezala saltzen zuten falangistek, baina hau, berriz ere, erregimenaren falazia bat izan zen. Komunista errepublikanoen alabak eramaten ziren bertara. Haur bakoitzeko ekonomikoki diru sarrera bat jasotzen zuten, eta helburu bakarra zeukan haurrei zuzendutako baserri hark: etorkizuneko haur errebeldeak doktrinatzeara eta beldurra zabaltzeara. Egoitza hau laikoek eramaten zuten, eta askotan eskolaz eskola ibiltzen ziren, Sorabillako egoitza udarako *resort* bat zela eta tuberkulosia ekiditeko modurik onena zela esanez.

Bertan egondako neskekin egindako elkarrizketetan, bizitzako momenturik lazgarriena zela esaten zuten, izan ere janariaren errazionamendu gogorra, komu-nera joateko ere eskubidea askotan ukatzen zieten eta kolpatuak ere izaten ziren. Haurrek laikoak zen nagusiari «*hechatortas*» deitzen zioten ematen ziotuen kolpeengatik; askotan haurren soinekoak altxa eta makila batekin hanketan kolpatzen zituzten, haurrak objektu bezala erabiliz. Herritarrengandik inkomunikatuak zeuden eta inork ez zekien zer gertatzen zen bertan, mezetarakoan bakarrik egoten ziren herritarrekin, baina hauekin hitz egitea ere galarazia zuten. Izan ere, mezetan lehenengo lerroan tokia erreserbatuta zuten eta herritarrek baino lehenago joaten ziren eta beranduago atera, hauekin hitz egiteko aukerarik ez izateko.

Bestalde, esan beharra dago Petra, Miren, Teresa, Alicia... Sorabillako baserrian egon diren haurren izenak direla, baina denera 25 haur ziren.

Sorabillako apaizarengana joatean, jasaten zutena salatu zuten egun batean, eta



**ANDER OTAÑO
ZUBELDIA
GEOGRAFOA**

haur hauen ausardiarengatik Andoaingo tuberkulosia zuten haurrak sendatzeko egoitza itxiarazi zuten. Izan ere, Sorabillako apaizaren osaba zen gotzain nagusiak hau kalera zabaldu baino lehenago egoitza itxiarazi zuen. Horrenbestez, 1952an, laikoek elkarrekin neskato guztiak Donostiako Gros auzoan zuten egoitzara eraman zituen.

Goizetan Intxaurrendoko laborategi batera eramaten zituzten, lanera. Ontzietan pilulak sartu eta likidua botilaratzea zen haien eginkizuna. Lan horrexegatik ere, elkarrekin dirua kobratzen zuten. Neskatoen esplotazioaren kontura dirua jasotzen aritu ziren.

Azkenik, egoitzaren atzean, hau da, baserriko salerosketaren atzean, Donostiako handiki esanguratsua zegoen.

Zerbait jakinez gero helbide honetara bidali: amigasdealicia1949@gmail.com.

Agenda

OSTIRALA UZTAILAK 19

BERASTEGI

HITZALDIA

17:00. Alzheimerrarekin elkar bizi, hitzaldia izango da Gaztainondo elkartean, Afagiren eskutik. Hitzlariak: Antton Elozegi (AFAGI Kudeaketa Batzarra) eta Koldo Aulestia (AFAGIko presidentea). Sarrera: doan.

IBARRA

MUSTXAPELKETA

22:00. Ibarako V. Mus Txapelketa Herrikoiko finala jokatu da izaskun jatetxean. Sariak: kanporaketa guztietan jasotako %50 banatuko dute lehen 6 bikoteen artean. Horrez gain, bestelako sariak ere izango dira.

AMASA-VILLABONA-ZIZURKIL

ITSASONTZISOLIDARIOEN LASTERKETA

18:00. Itsasontzi solidarioen lasterketa Sacemgo zubia, Amasa-Villabona Zizurkil. Saharako haurren aldeko lasterketa izango da. Zubimusu ikastola eta Erriboea ikastetxearen artean, 2.000 itsasontzi solidario prestatu dituzte. Sacemgo zubitik Zubimusu zubira egingo da lasterketa.

GARAGARDO AZOKA

18:00-01:00. XXIII. Garagardo Azoka, Irrintzi elkarteak antolatuta, Txermin eskolaren azpian. 27 garagardo mota dastatzeko aukera izango da.

TOLOSA

MUSIKA

20:00. Fundación de Raperos Atípicos de Cádiz taldeak joko du 3 tabernan.

MUSIKA

23:00. Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da Lopez Mendizabal pasealekuan: *Dantzarako piezak*. Enrique Arostegi Eguzkitza zuzendariarekin.

ZIZURKIL

ZIZURKILGO GTX FESTA

17:00. Arteaz, mural margoketa.

18:30. Arroparen kolektibizazioaren irekiera, plazan.



Villabonako Garagardo Azokan garagardoaz gain, jateko aukera ere izango da. ITZEA URKIZU

22:00. Kontzertuak: Portavoz, Catana eta Nuclear, Luanko, Revilo Marley, DJ Jopsen, Gorka Suaia eta Ama Rebel, Rumi, Dabu & Lilith Selektah. Momentuan 6 euro, sarrerarekin, 5 euro.

MUSIKA

20:00. Baliko lehiaketara joan aurretiko azkeneko entsegu irekia izango da Landarbaso abesbatzak eskainiko duena, herriguneko elizan.

LARUNBATA UZTAILAK 20

ASTEASU

SANTAMAÑAKO FESTAK

12:00. Haurrentzako tailerrak.

14:00. Herri bazkaria. Ostolaza eta Ezkerra trikitilariekin.

18:00. Zezen txikiak.

Gauean. Ostolaza eta Ezkerra trikitilariak.

AMASA-VILLABONA

GARAGARDO AZOKA

18:00-01:00. XXIII. Garagardo Azoka, Irrintzi elkarteak antolatuta, Txermin eskolaren azpian.

IRURA

IV. GAZTE EGUNA

11:00. Jolasak egingo dituzte.

14:30. Bazkaria.

Ondoren. Bingo musikala eta poteo musikatua.

21:30. Afaria.

TOLOSA

BONBERENEAKO XIV. FUTBOL TXAPELKETA

10:00. 14. Futbol Txapelketa jokatu da. A Taldean, Bonbero, Senegal, Gudari eta Ziparrakos A ariko dira, eta B taldean, Bonberenea txaranga, AGA, Ziparrakos B eta IGA.

Ondoren. Parrillada.

BIRZIKLATU AZOKA

16:30. Ana Yurd elkarteak antolatuta, hileko hirugarren larunbatean egiten den azoka da, Berdura plazakoa. Etxean erabiltzen ez diren gauzak saltzera ala trukatzera eraman daitezke: artisautza, zerbitzuak, birziklatutako materialekin egindako gauzak,...

ZIZURKIL

ZIZURKILGO GTX FESTA

10:00. Azoka eta infogunearen irekiera. Pintxoak egongo dira.

Ondoren. Gaztetearen izaera eta ibilbidea eta eskualdeko proiektuaren aurkezpena.

12:00. *Estado de excepcion y estado de guerra* liburuen aurkezpena, Esteban Zamorarekin.

14:30. Bertso bazkaria: Maialen Akizu, Eli Pagola eta Aitor Bizkarra bertsolariekin. Gai jartzailea: Amaia Agirre. Sarrera: 7 euro.



SANTAMAÑATIK SANTA MARINARA, FESTA

Asteasuko Santamañan pasa den astetik dabilta festa usainean. Atzo bota zuten suziaren festak, ordea, bihar eta etzi izango du jarraipena. Bi egun bete-bete izango dituzte. Baina festa ez da Asteasun bakarrik izango, Albizturko Santa Marina auzoan ere igandean ospatuko dute Santa Marina eguna. JON MIRANDA

17:00. Ipuin Poema Sinfonikoa.

19:00. Txoira Txori bakarlaria.

IGANDEA UZTAILAK 21

ASTEASU

SANTAMAÑAKO FESTAK

11:30. Meza nagusia.

Ondoren. Herri kirolak. Aizkolariak: Aratz Mugertza eta Julen Kañamates. Harri-jasotzailea: Aimar Irigoien.

Ondoren. Trikitilariak: Laja II eta Lutxurdio.

18:00. Erakustaldia. Herriko harri tira taldea eta astoa.

Afalaurretik. Tranpazuloren jaitsiera.

Gauean. Laja II eta Lutxurdio trikitilariak.

ALBIZTUR

SANTA MARINAKO FESTAK

12:30. Meza nagusia Santa Marinako elizan.

14:00. Bazkaria Segoretxe Etxe Berri jatetxean, Albizturko erretirodunentzat.

17:30. Herri kirolak: Albiztur eta Bidaniko gazteen arteko lehia.

Ondoren. Arratsaldea girotzeko trikitia Arandia anaïen eskutik.

AMASA-VILLABONA

GARAGARDO AZOKA

18:00–01:00. XXIII. Garagardo Azoka, Irrintzi elkarrekin antolatuta, Txermin eskolaren azpian. 27 garagardo mota dastatzeko aukera izango da.

LEABURU-TXARAMA

LARRESORORA IRTEERA

09:45. Larresoroko harri-zubiko jaietara egun pasa eginez joateko autobusa Leaburutik aterako da. 10:00etan, Txaraman egingo du geldialdia.

ZIZURKIL

ZIZURKILGO GTX FESTA

11:00. Ume jolas kooperatiboa: Kaxildaren bila.

18:00. Zineforuma: *La haine*.

ASTELEHENA UZTAILAK 22

TOLOSA

ZINEA KALEAN

22:30. *Campeones* filma ikusteko aukera izango da aire librean, Berazubi auzoan.

ZINEMA



FANNY Y ALEXANDER

Ostirala (20:30). Zine foruma. Jatorrizko bertsioan, gaztelerazko azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.



CASI IMPOSIBLE

Igandea (19:30).

Astelehena (20:30). Ikuslearen eguna.

Leidor, Tolosa.

Nafarroako goldea



AMAIA AGIRRE ARRASTOA

*Udak lehorte nahiz uholdea
zernahi du bere baitan gordea
Tafallan urak ito du auto,
lantoki zein laborea (berriz)
berriz lehen sektorea
nekazal bizimoldea
Nafarroako goldea
nahiz hondamendi lur izendatu
nahiz elkartu batzordea
auzolanari esker onduko
da lohiaren kolorea. (berriz)*



Doinua

Itsaso hori dago
zatarra

Chiquitaco can tac

E guzkitako krema, txapela eta kantinplora. «Piraten bizitza hoberena da!» oihukatzea. Jatorri desberdinetako lagunak egitea. Lotara joatean gurasoen falta sumatzea. Jolasetan izerditan blai aritzea. Denek dute lekua udalekuetan. Ba al da gauza hoberik?

Euforiaz jositako denbora tarte hori etengabe-ko hausnarketa prozesua bilakatzen da begirale ororentzat (edo horrela behar luke). Zenbatetan pentsatu ote dut gure jarduna haurren aisialdi eta

gozamenerako eredu garria ote den, batez ere hizkuntzaren arloari dago-kionez. Urtean zehar euskaraz hitz egiten ez duten haurrekin nola jokatu, nola gerturatu gurera derrigortzeko animorik gabe...

Bizi berri dudana udalekuan euskararen aldeko jarrerak egunez egun

gora egin du, aurrez finkatu genituen hizkuntza eta komunikazio helburuak lortuz. Errealitatera bueltatzeko zaplaztekoa jaso genuen hala ere azken egunean haurrek egindako disko

festako abestien zerrendan euskarazko abestirik ez zegoela ikusita. *Aldapan gora* entzutean dantza bai, baino gaztelerazko *reggaetoi* kantak jartzean ikusitako euforia...

Egun bizitzen dugun musika kontsumoa erreparatuta espero zitekeen haurren jokabide hori.

Gainera, *Go!azen* bezala-

koak kritikatzeko jarraitzen badugu haurrek Sukan edo Sorotan Beleren abestiak ezagutzeagatik, jai daukagu. Begirale eta hezitzaileok euskara abenturak sortu behar dizkiegu haurrei, bai musika eta bai aisialdiko eredu desberdinak eskainiz. Ezin dugu atzean gelditu.



IÑIGO IRURZUN
IRAKASLEA

**Errealitatera
buelatzeko zaplaztekoa
jaso genuen hala ere
azken egunean haurrek
egindako disko festako
abestien zerrendan
euskarazko abestirik
ez zegoela ikusita**

POEMA KARLOS LINAZASORO



Lurrak Haziak

Gure bizialdia, hitz bitan: «Lurrak hazi, lurrak jan behar». Hark ematen diguna heriotzan dugu kitatzen; lurrak ez ditu begiko lapurrak!

Lurretik jaio eta lurrera itzuli, hautsetik hautsera, halabeharrean, argiz ilun-txiro edo argiz betean, patu anker horri ezin egin itzuri.

Lurra da gizaki guztion altzo, arnas sakon, sehaska, ama eta bazka, eta halaber gorpuon betiko garra.

Txango biribil xume baten antzo, bizitzak lokatzean du abaraska, gu bizidunon antsi eta negarra.

Lasaitasuna ere eskertzen da

Tolosan bizitzeak, festa eta ikuskizunarekin bizitzea esan nahi du. Asteburu gutxi daude ekitaldirik gabe, eta herria lasai aurkitzea arraro ikusten dugu.

Uste dut tolosarrak oso ohituta gaudela denetari-ko ekitaldietara, janaria dela eta hamaika gauza antolatzen dira, edaria dela eta beste hainbeste.

Kirola, musika, dantza, kultura... aitzakia guztiak dira onak ospakizunak antolatzeko eta txarangaz kalean disfrutatzeko. Baina batzuetan, lasaitasuna ere eskertzen da. Herria bake-bakean bizitzea ere gustura hartzen dela iruditzen zait.



NATALIA GARMENDIA
MUSIKARIA

Musikaria naizen ikuspuntutik, zarata egitea gustuko dut eta kontr-esan bat bezala ikusi daitekeen arren, lasaitasuna eta isiltasuna ere gogoko ditut. Eta uste dut, nik bezala

pentsatzen duten pertsona asko egongo direla. Alde Zaharrean eta erdialdean bizi garenok badakigu zertaz hitz egiten ari naizen, herri aktibo bat daukagu eta horrek suposatzen duena ere «pairatzen» dugu.

Nik aktibitatea asko baloratzen dut eta gus-tatzen zait, baina batzuetan, aitortu beharra daukat, lasaitasuna gustura hartzen dudala.

**Herria bake-bakean
bizitzea ere gustura
hartzen dela
iruditzen zait**

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro lasaia. Ipar-ekialdeko haizeari esker zerua argiago agertuko zaigu aurreko egunekin alderatuta.

Goizean oraindik hodeigune dexente agertuko dira, baina eguerditik aurrera zeruan hodei gutxi ikusiko dugu eta

zeru urdina izango da nagusi. Termometroak zertxobait gora egingo du eta neurriko beroa izango dugu, maximoak 23-25 gradu bitartean gertatuko dira.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Egunsentian hodei asko ikusiko dugu ipar-haizearekin eta euri pixka bat ere utziko digute hodei hauek. Eguerdi-arratsaldeko lehen orduetan hodeitza saretuagoa izango da eta ostarte politak ikusiko ditugu, non tenperatura atsegina izango den eta eguraldi lasaiatz gozatu ahalko den. Tenperatura maximoak 24-26 gradu bitartean kokatuko dira. Arratsalde erditik aurrera zerua hodeitsu gertatuko da eta euri pixka bat izango da egunaren amaieran.

IGANDEA

Goizaldean berriz ere hodei asko ikusiko dugu eta eguerdira arte euri pixka bat utziko digute hodei hauek. Eguerditik aurrera hodeitza arindu eta arratsaldean ostarte batzuk izango ditugunez, giroa lasaiagoa izango da. Haizeak ipar-ukitua izaten jarraituko du eta termometroetan ez da aldaketarik emango, eguneko erdiko orduetan 24-26 gradu bitartean joaz goia.

OSTIRALA
19



IGANDEA
21



LARUNBATA
20



ASTELEHENA
22



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburrak argitaratzeko deitu
943 65 56 95
zenbakira, idatzi
ataria@ataria.eus
helbidera edo pasa
ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak
iragarkilaburrak.eus
webgunean

FARMAZIAK



UZTAILAK 19, OSTIRALA IBARRA

Egunekoa. Mujika Martinez, E.
Euskal Herria kalea, 3..
Telefonoa: 943 67 09 15

UZTAILAK 20, LARUNBATA IBARRA

Egunekoa. Lejeune Maset, L.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

UZTAILAK 21, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea Aiestaran, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

UZTAILAK 22, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Olarreaga Aranburu, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 00 00 00.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Azpiroz Galartza, L.
Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa: 943 67 5118.



ataria
Irratia
107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

16:30. Denbora da poligrafo bakarra.

17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Elkarriketap (Lorea Argarate).

22:30. 1, 2, 3 Hemen da Miru!

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.



atariako arkua
zure herriko
jai edo kirol ekitaldietan
erabili nahi baduzu
eskatu doan:
ataria@ataria.eus • 943 65 56 95



ZURE UKIPEN-LENTEAK
EROSITA,
ERAMAN EZAZU

Wildgo
BETAURREKOA
OPARI

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren
ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



Audi Teknikaren abangoardian.

Nork itxaron nahi du bihar arte?



Audi Q5, hilean 290 eurotik*

Audi Garaia da, uztailaren 1etik 31ra bitarte.

Gauza batzuegatik itxaron egin behar da, baina, Audi Q5 bat hilean 290 euroan*, sekulako rentingarekin eta zerbitzu guztiak barne izateagatik, ez.

Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic. CO₂ igorpenak (g/km): 189-200 (NEDC: 144-146). Kontsumoa (l/100 km): 7,2-7,6.

* Audi Financial Services-en eskaintza, Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic batentzat kalkulatuta, 36 hilabete eta 45.000 kilometroko renting kontratu batekin, 7.296 euroko diru sarrera eginez, Volkswagen Renting S.A.ren bidez. Kuotak eta hasierako diru-sarrerak ez dute BEZa barne. Gorpil aldaketa ez dago eskaintzan txertatuta. Audiren Sare Ofizialeko mantentze eta higadura zerbitzu guztiak, bermea (matxura konpontzea), arrisku orotarako frankiziarik gabeko eta bideko laguntzadun aseguruia barne. Beste bertsio eta ekipamendu batzuetarako, egin kontsulta zure Audi Kontzesionario Ofizialean. 2019/06/30era bitarteko eskaintza, stockean dauden unitateentzat. Audi Financial Services Volkswagen Finance S.A. EFC-k komertzializatutako marka bat da. Ikusgai den modeloa ez dagokio eskaintzari.